

# Testukritika eta euskal testuen edizioaz

Isaak Atutxa-Kaudalategi (UPV/EHU)

## 1. Testukritika: ikuspegi orokorra

### 1.1. Definizioa eta eremua

Filologiaren azken helburua herri edo historia garai bat(zu)en ezagutza eta berreraikuntza osoa izanik ere —bere(n) hizkuntza, literatura eta kultur emaitza ororen azterketaren bitartez— hitz hori *restitutio textusa* izendatzeko erabili izan da (Lakarra 1988: 103).

Eta *filologia* berbari bere adierarik zabalen hau gorderik, *testukritika* hitza erabili beharko genuke bigarren zentzu hertsiago bat aditzera emateko, hots, obra zahar eta berrien testua beren benetako forman eraikitzen diharduen zientzia saila izendatzeko, testuok egileen asmoari atxikiaz eta bertatik denboraren joan-etorriak eta ondorengoan buru eta eskuek gaineratu huts, akats eta ulerkuntza gaiztoak ezabatzen saiatzen dena, alegia (Morocho Gayo 2003b: 117).

Bide honetatik, beraz, testukritika filologiaren adar berezi bat dugula aitortu beharko genuke (Contini-k diosku, bere *Breviario di Ecdotica*-n, filologia testukritikan iristen dela gorenera) (in Orduna 2005: 50).

Testukritikaren sinonimotzat erabili nahi izan dira Dom Quentin-ek 1926.ean sortu zuen *ekdotika* hitza<sup>1</sup> edo *stemmatica* bera ere.<sup>2</sup>

Testukritikaren eremua lantzen dituen testuena bezain zabala da, testuon hizkuntza edo idazkera bat edo beste izan. Ondorioz, "Testukritika klasiko" edo "tk.

---

<sup>1</sup> Alberto Blecuak honako hau diosku (*Manual de crítica textual*, 1987: 18-19): “algunos críticos lo utilizan como sinónimo de crítica textual –como es el caso de Silvio D’Arco Avalor y otros, como A. Roncaglia, dan a este término un significado más extenso, puesto que incluiría, además de su núcleo puramente filológico –la crítica textual-, todos los aspectos de la técnica editorial, como es la disposición, titulación, el uso diferenciador de los caracteres gráficos, ilustraciones, índices, etc.”

Gian Mario Anselmi, Emilio Pasquini eta Francisco Rico-k, *Ecdótica* aldizkariaren 1 zenbakian (2004), honela diote sarreran: “Ecdótica, fin dei tempi di dom Quentin, è il termine ‘adoperato spesso come semplice sinonimo di critica testuale’, quando con tale sintagma ‘s’intenda più generalmente la disciplina che presiede all’edizione di testi, sia antichi sia moderni, vagliandone i problemi tecnici ed elaborandone le norme metodologiche. A rigore, infatti, la nozione di *ecdotica* deve considerarsi più estesa della nozione di critica testuale, includendo in sé tutti gli aspetti della tecnica editoriale: anche quelli meno essenziali, concernenti, di là dall’assetto interno del testo, anche l’assetto esterno dell’edizione (modi di messa in pagina, disposizione, titolazione, uso differenziato dei caratteri grafici, corredo d’illustrazioni e d’indici, ecc)... Uno dei grandi dizionari europei definisce l’*ecdotica* come la ‘disciplina que estudia los medios y los fines de la edición de textos’. Siamo d’accordo”.

Demagun, azkenik, German Ordunaren iritzia (*Idem.*, 51 eta 54): “Tecnicismo que apareció con justicia en los trabajos de Dom Quentin (1926) y que, propiamente, debe limitarse a las operaciones de cotejo de variantes, integración del estema y constitución del texto”. Eta: “Aunque etimológicamente ‘ecdotica’ equivale a ‘edición’ (=‘sacar a luz’, ‘publicar’), parece conveniente reservar el nombre de Ecdótica para toda la metodología creada para la *recensio* y mantener el de Crítica Textual para designar la totalidad de etapas y operaciones que llevan del manuscrito o impreso primitivo a la edición crítica de nuestros días.”

<sup>2</sup> “En alguna ocasión se utiliza también el término *stemmatica* como sinónimo de *crítica textual*, dado que el llamado método lachmanniano, basado en la construcción del *stemma*, es el más generalizado.” (Blecu: *ibid.*)

erromanikoz" mintzo gara, autore greziar edo latindarren testukritikaz edo arazo berezia azaltzen duten autore edo obren testukritikaz (Homerorena, esaterako).

## 1.2. *Azken mendea*

Eskura dugun obra baten testuaren aurrean azaltzen dugun mesfidantza edo onarpenik eza editore kritikoaren abiapuntu da, batetik, eta, bestetik, helburu duen testua lortzeko bide egokiak zehaztuko dizkio. Puntu honetantxe datza, hain zuzen ere, azken mende honetako eskola desberdinen arteko eztabaida.

XVI. mendeaz geroztik, original edo arketipo bat berreraikitzeke aukeraren aurrean baikor azaldu da eskola bat baino gehiago. Joseph Bedierren jarrera eszeptikoa, ordea, tradizio honekiko lehen haustura garrantzitsua izango da. Bedierren ustez, testu berreraiki bat erlatiboa zan, izatez, ez beti lan metodologia egoki batetara atxikia gainera, eta toki ilun batzutan, nahitaez, *iudicium*-era jo behar zelarik, arbitrarioa ikusten zuen originaletik ahalik eta hurbilen dagoen kopia baten lekukotasuna testu berreraiki horretaz ordezkatzeari.<sup>3</sup> Cesare Segrek diosku Bedierren irtenbide positibista honek, oinarrizko eskuizkribuaren objektibotasuna aitzakia, testuaren halabeharrezko izaera problematikoa desagerrarazten duela.

Bedier eta bere jarraitzaileen aurka azaltzen dira Lachmannen eskola berrikoak, bereziki italiarrak, Gianfranco Contini euren artean. Contini izan da eskuizkribu bakarraren mitoa hautsi duena. Eskuizkribu bakarrak fidatzen dena gainontzeko lekukotasunen ekarri positiboaz gabetzen da; ez hori bakarrik, originala toki batean hondatua dela ikuasten ez denean, gainontzeko lekukotasunek toki hori aurkitzeko duten balioaz ere gabetzen da eskuizkribu bakarrak fidatzen den hori.

Cesare Segrek testuaren leheneratze posible eta erreal eta leheneratze birtualaren arteko oreka eraginkorra proposatzen du. Leheneratze posible hori huts bateratzaile eta banatzaileetan oinarritutako lan ekdotikoak uzten duen tokietan egin daiteke (zilegi da hemen Lachmannen metodoa erabiltzea, era honetako aldakiek testuaren literaltasuna ukitzen dutela). Leheneratze birtualean, ordea, desitxuratutako tokietako zuzenketak aieru bidez baizik ez dira posible; kasu hauetan, testua eta aparatu kritikoaren arteko harremana irekia utzi beharko litzateke.

Segreren proposamen honetan bizirik dirau Pasqualiren izpirituak, gaur egungo mintzairara ekarria, noski. Testua gizonak sortua da eta gizakiaren izpirituaren kutsua du. Orduan, bizitza propioa duen testu bezala eskuratu behar dugu. Eta argitaratzaile kritikoak eskura dugun iturrian diasistema bezala dagoen bizi propio hori antzeman behar du eta originalera heltzeko aukera modurik hoberenean bihurtuko digun diasistema bat lortzeko mekanismo guztiak sortu. Eta hau ez era jakin edo mekaniko batean eginez: irakurle modernoa originalaren testu sistemara hurbiltzeko aukera ezarri behar du argitaratzaileak (C. Segre: "Les transcriptions en tant que disystèmes", *La pratique*-n, 1979: 45-49).

## 1.3. *Metodo desberdinei buruzko azken gogoeta*

---

<sup>3</sup> Zera proposatzen du: "ouvrir aux scribes le plus large crédit et de ne toucher au texte d'un manuscrit que l'on imprime qu'en cas d'extrême et presque évidente nécessité" (*Lai de l'Ombre* (1928), 1970: 71).

Ez neolachmanismoa ez neoelektizismoa. Testukritikaz nolabaiteko gaitasunez mintzatzeak etengabeko eta aldi bereko lana suposatzen du edizio kritikoen prestakuntzan (“Testukritika ez da berari buruz irakurriz ikas daitekeen zerbait. Oinarrizko printzipioak nork bere eginda, behaketa eta praktika eskatzen dira, ez teoriaren adar desberdinetan ikertzea” M.L. West, *Textual Criticism and Editorial Technique applicable to Greck and Latin Texts*, Stuttgart, 1973. In Morocho Gayo 2003a: 131).

Bi ikuspegi izan ditugu testukritikaren tradizioan: tradizio horizontalari nagusitasuna emanik, irakurketa bakoitza kodize bakoitzean bilatzen duena bata, eta eskuizkribu desberdinen artean loturak ezartzen dituen beste. Eskuizkribuok, azpi-arketipoen bidez arketipora igotzen dute eta, maiz, testu klasikoez ari garenean, aurre-arketipo batera, eta honek era berean autorearen autografora. Bigarren bide honetan tradizio bertikalaren kontzeptua da nagusi, eta aurka daude bata eta bestea, argi eta garbi.

Bertikal eta horizontal adjektiboak transmisio izenez ezagutzen den errealitate baten ezaugarri kontrako baina osagarriak dira. Eta filologoak ez luke tradizioetako baten abstrakzio hutsera heldu behar bestea ere hor dagoela kontuan izan gabe.

Eta testuen transmisioaren historia ezagutzen duenak ezin du ukatu Filologia Alexandrian jaio zenetik transmisio bertikala izan dugula, eta testu askotan tradizio horizontala eta kutsatua eragin duen aritzeko modu bat izan dela. Lachmanismoa eta eklektizismoa, bada, gainditutako sistemak ditugu batak bestea baztertzen duen heinean (Morocho Gayo 2003a: 131).

Testukritikak beste zenbait diziplinak bezala, nekez azal daitekeen ezagutza suposatzen du. Oinarrizko hastapenak erraz ikas daitezke, baina teoria baino beharrezkoago dira behaketa eta praktika.

Edizio bat, izan, interpretazioa da eta eskola filologiko orok nahi du bere interpretazioa ezarri. Egia da ediziorik gehienak neolachmanismoaren printzipioei jarraituz egiten direla, eta hor dago bide hori jarraitzeko gomendatzen duen Blecuaren eskuliburua. Baina hau metodo bikain bat baizik ez dugu, ez Metodoa. M.L. West-en eskuliburua, esaterako, korrante metodologiko desberdinen sintesi eta integrazio eredu bikain dugu.

Etorkizuneko edizioei begira, makina elektronikoek eta automatizazioak, seguruenik, modu eraginkor batez hartuko dute parte. Gaur egun erabiltzen da, dagoeneko, ordenagailua aldaeren berreraiketan eta aztertu behar ditugun aukeraketan. Baita *stemma*-ren berreraiketan, nahiz eta kasu honetan kutsadura benetako arazoa izan. Testukritikaren azken aldian ere (testuaren inprimatzea eta aparatu kritikoaren antolaketa) aukerako dugu ordenagailua erabiltzea.

Bakarrean jardun duen ikertzaile kritikoaren irudia gainditutzat du Morocho Gayok. Etorkizuneko filologoak, edizioak prestatzerakoan, matematiko eta informatikalariekin batean egin beharko du lan. Bere ustez, aspaldidanik, Testukritika elkarlanean egin beharreko lana dugu (M. Gayo 2003a: 154).

#### 1.4. *Testukritikaren planteamendu berri baten beharra*

Kontua ez da Testukritikatik *emendatio ope codicum*-a baztertzea; beti izango da beharrezkoa, eskuizkribu zenbait bitarteko dela, testuaren formarik zaharrena *recensio*-aren arau finko eta zehatzen bitartez berreraikitzea.

Baina berreraiki genezakeen formarik zaharrenean beti gelditzen dira zenbait *vitia*, eskuizkribuen bitartez zuzendu ezin direnak. Orduantxe jo beharko dugu aierura (*emendatio ope ingenii*).

Aieru bat eratu edo aldaera bat aukeratu behar denean, orduan, edozein motatako laguntzara jo behar dugu.

*Usus scribendi*-a, hau da, idazleraren hizkuntza eta estiloa, erabat eskasak dira G. Morocho Gayoren ustez (2003b: 122). Bere ustez, beharrezko da irizpide tinko eta ahal den neurrian ziurrak finkatzea Testukritikaren arloan, subjektibismo oro saihestu eta ahalik eta zehatz eta objektiboen eskaintzeko autorearen asmoa.

Hortara, bada, linguistika, semantika eta estilistika-prozedura asko testukritikaren arloan modu aktibo eta koherente batez jarduteko *subsidi*a-tzat hartu beharko genituzke (lagungarriak izan beharko litzaizkiguke). Honela, gaur Kodikologiara estuki lotua dugun zientzia hau, “erabateko kritika”-ren barne har genezake, Morocho Gayoren ustez, eremu honetan atal oso garrantzitsua betetzen duelarik (M. Gayo: 2003b: 123).

Testukritika ezin da zerbait mekanikoa izan, azken beltzean, tradizioaren lekukotasun desberdinen alde zuzeneko azterketa bide dela, testuinguruaren ezagutzaren menpe baitago.

### 1.5. *Edizio kritikoa*

Alexandriako garaietatik testuen edizioaz arduratu, mendeetan zehar Bibliaren exegesian jardun eta XIX. mendean testukritika modernoaren oinarriak azaldu zituen adar honek ez zuen zalantzarik izan edizio kritikoa zer zen adierazteko orduan; izan ere, argi zegoen zeregin eta lan guztien helburu eta bukaera edizio kritikoa zela. Eta, XIX. mendean zehar antzinako testuak argitaratzeetik Erdi Aroan Europan sortutako hizkuntzetan idatzitako liburuak argitaratzera pasatzen direnean, orduan ere helburuak argiak ziren eta, beraz, arazo eta eztabaidak edizio horiek lortzeko metodologiarik egokien eta eraginkorrean zeuntzan.

Dom Quentin burubelari sartzen da arazo honetan *ekdotika* hitza sortzen duenean: hasierako “arte” azalpenari proposatutako metodologiaren zehaztasun zientifikoa gehitzen dio. Dena den, helburua testuaren edizioa bera izan da argitaratzaile guztientzat, bidean metodologia bat edo beste erabili, eskola batetakoak edo bestetakoak izan. Eskura zegoen testua hobetu nahi zen eta hori lortzeko lanak, testu berria argitaratzeko lanak, sistematikoki ordenatuak zeuden: lekukotasun desberdinen aukeraketa arretatsua, irakurketa desberdinen alderatzea, argitaratuko zen testuaren irakurketa bat edo beste aukeratzeak suposatzen zuen erabakia hartzea etab., erabilitako metodologia guztia, argitaratze-irizpide batean biltzen zen.

Lortutako edizioak “kritiko” izendatzea merezi du Ordunarentzat, argitaratzaileak bere helburua lortzeko eman behar ziren pausuak zientifikotasunez eman dituelako. Ordunaren hitzetan esanda: “Juzgando objetivamente, entendemos que

el calificativo de ‘crítica’ depende exclusivamente de la intención y metodología con que ha trabajado el editor y de la explicitación de las mismas en la obra realizada o en el estudio que precede al texto” (2005: 18).

D’Arco Silvio Avalle-ren definizioa kontuan hartzen badugu,<sup>4</sup> edizio bat kritiko dela esan ahal izateko bi faktore hartu beharko ditugu aintzat: erabilitako metodologia eta lortutako emaitzak. Testua eta edizioaren aurkezpena direla medio ahal izango dugu ebatzi. Batzuetan, jarraitutako metodologia azaldu ez izanagatik, aldakien aparatuak, testu oharrek eta ohar kritikoek, gainontzeko ohar zenbaitek eta argitaratutako fitxategiek erakusten dituzte erabilitako irizpideak eta betetako helburuak; hauexek erakutsiko dute, finean, autoreak edizio kritiko izan duela helburu (kontua, bada, ez da aparatua osoa, betea izatea, edo ohar kritikoak zuzneak; kontua da aparatua eta oharrak aurkeztuz testu kritikoa azaldu nahi izan dela).

Laburbilduz, bada, esan genezake sarrerako ikerketa, aldaki eta oharren aparatua eta ikerketan itsatsitako fitxategiak edizio kritiko baten nahitaezko osagaiak direla.

## 2. Euskal testuen edizioaz

Euskal edizioen nondik norakoak ezagutzeko, ezinbesteko dugu Blanca Urgellen *Euskal edizioen historiaz* lanera jotzea<sup>5</sup>.

Bere ustez, gaur euskal edizioen munduan bizi dugun egoera euskal edizioen munduak izan duen bilakaerak azaltzen du. Argitalpengintza tradizio baten gainean sortuaz doa eta tradizio hau nolakoa izan den, zein asmorekin sortu den, zein irizpideren gainean eratu den eta nolako tresna epistemologiko eta mekanikoak erabili dituen azaltzen saiatu da bere lan honetan.

Eta, kontu hauen arabera, nahiz eta sinpleegi jokatzeko arrizkua izan, euskal edizioen historian bi argitaratzaile mota izan direla esan genezake: Mitxelena eta berak urratutako bidea jarraitu dutenak eta gainontzeko guztiak, aurreko eta ondorengoak.

Aurrekoek eta ondorengoez, esan hizkuntza eredia nahikoa aldatu zela belaunaldi berrietan; Gerra aurrekoentzat onartezina zena, eredu bilakatu zen: batua zela eta, maileguak onartzeko irekitasuna zela eta, liburu zaharrek euskaltzale gehienen artean lehen ez bezalako estimua erdietsi zuten. Gerra ondoko aldetariek nabarmenena liburu zaharren argitalpenak euskaldunen eskutik ateratzea dugu (Urgell 2000b: 1).

### 2.1. Gerra zibilera artekoak

Oinarrizko sailkapena bi ataletan banatzen da:

#### 2.1.a. ARGITARAGAIA ZERBAITEN IZENEAN FUNTSEZKO DIREN ALDERDIETAN ALDATU IZAN DUTEN ARGITARATZAILEAK

---

<sup>4</sup> (“Un testo si chiama critico quando è stabilito in base alle leggi della critica testuale”, *Principii*, 1978: 119). In Orduna: 2005: 18.

<sup>5</sup> “Euskal edizioen historias: I eta II”; lan argitaragabeak. UPV/EHUko 2000. urteko Uda Ikastaroetan emandako hitzaldia dugu.

Atal honetan sartzen diren argitalpen guztiak ez dute batere zerikusirik filologi lanarekin, argitaratzaileak testuari eta egilearen asmoari zor zaion errespetuari inolako jaramonik egiten ez baitio.

Honelako argitaratzaileak hiru motatan bana daitezke gaingiroki:

1.a) *Argitaragaia bizirik dagoelakoan eguneratu dutenak*. Argitaratzaileak, sarritan, izengabeak dira: badakigu norbaitek testua ukitu duela, baina ez nork. Hau izan da euskal testuak argitaratzen hasi zirenetik eragin gehien izan duen argitaratze mota. Honelatsu berrargitaratu dira euskal liburu gehienak historian zehar.

Honelako argitaratzaileen ustetan, argitaratu behar duen liburua bizirik dago oraindik eta liburuak dituen akatsak, ustezkoak zein benetakoak, zuzentzen saiatzen dira.

Talde honetako adibide gisa, Etxeberri Ziburukoaren *Noelac* liburua jartzen digu Blanca Urgellek. Liburu hau erabilera praktikoa zeukan kanta-liburua dugu, orduan oso erabilia eta, Vinsonen ustez (1891: 73), *Cantico spiritualac* liburua argitaratzen hasi zenetik argitaratzeari utzi zitzaiona.<sup>6</sup>

Atal honi dagozkion adibide gehiago aipatzen ditu Blanca Urgellek, Irazustaren *Dotrina* esaterako.<sup>7</sup>

1.b) *Euskararen izenean aldatu dutenak*. Honelako aldaketak izateko, eskatzen den baldintza jarraikoa da, argitaratzaile berriak euskara onaren eta txarraren artean bereizteko irizpideak izatea eta argitalpenean erabiltzea.

Berezi beharko genituzke asmo praktikoagatik hizkuntzaren aldetik ere ikutu ziren argitalpenak eta hizkuntzaren onean bakarrik (edo ia bakarrik) pentsatuaz ikutu zirenak. Eta hau gero eta nabarmenagoa da 1900. urteak ezartzen duen muga igarotzen dugun heinean, nahiz eta arinago ere adibide argiak izan. Hemen, nahiz eta argitalpena ez izan, Zabalaren *Adiciones y correcciones a la obra Urteco domecac del P. Astarloa* aipatzen du Blanca Urgellek.

Baina adibiderik argienak XX. mendean aurkitzen dira (Urgell 200a: 10-12).

1.c) *Zientziaren izenean aldatu dutenak*. Bonaparteren argitalpenak dira adibide argiena, Printzea baita euskal idaztiak helburu zientifikoarekin argitaratzen edo berrargitaratzen dituen lehena.<sup>8</sup>

---

<sup>6</sup> Blanca Urgellek ez du 3.1.1 atalean aurkezten dugun Harizmendiren *Noelac*-en edizioaren berri izan aurkikuntza berak historia idatzi zuen baino bizpahiru urte beranduagokoa baita. Edizio hau izan daiteke talde honetan kokatzen ditugun argitalpenetako adibiderik garbientakoa. Harizmendik argitaragaia bizirik dagoelakoan egin du bere argitalpena.

<sup>7</sup> Adibide gehiagorako ikus Urgell 2000a: 7-9.

<sup>8</sup> Izan, talde honetako lehen argitalpena honako hau izango litzateke Urgellen ustez (2000a: 12): Lécluseren *Sermon su la montagne en grec et en basque, précédé du paradigme de la conjugaison basque* (Toulouse, 1831, = Vinson 3h), Londreseko Gwyneddigion Elkarrekin eskatuta. Baina ez dago ezer Bonaparteren argitalpen lanaren tamainari aldera dakiokenik. Gehiagorako, Urgell 2000a: 12-15.

## 2.1.b) ARGITARAGAIA ERRESPETATU NAHI IZAN DUTEN ARGITARATZAILEAK.

Badirudi argitaragaia errespetatu nahi izateko, argitaratzaileak argitaragaia den bezala ezagutzera emateak interesa daukala sinistuta egon behar duela.

Blanca Urgellek uste du, honelako argitaratzaileak agertzeko, bi ezaugarri nagusi bildu zirela:

- Testuekiko uruntasun sentimendua: halako argitaratzaileentzat testu zaharrak ez daude bizirik. Aintzinako hizkuntzaren lekukoak dira ezer baino lehenago.
- Argitaratzaile hauek aintzina-gauza zaleak dira.

Atal honetan ere bi eratako argitaratzaileak izan ziren:

*Euskal irakurleen eskura jarri nahi izan zutenak: euskaltzaleak.*

*Euskaltzaleak* elkarteak dugu atal honetan adibiderik argiena, hasieran Azkuek bultzatua.

Urgellen ustez, Azkuek argitaratzean erabiltzen dituen asmo eta erizpideak bi kontutan labur daitezke: Ahalik eta obra gehien argitaratu nahi du jendearen eskura izan daitezen eta, bestalde, liburuok bera bultzatzen ari zen grafia berria jartzea (Urgell 200: 16-18).

*Euskalarien eskura jarri nahi izan zutenak: euskalariak.*

Argitalpenak jakintsuentzat egiten dira, eta jakintsuen aurrean erantzule da argitaratzailea. XIX. mende bukaerako eta XX. mendearen hasierako filologiaren eta bibliofiliaren munduan sartzen gara. Orduan sartzen da filologia euskalaritzaren munduan. Agindua testuak diren bezalaxe argitaratzea da.

Eta hemen ere, bi atal egiten ditu Urgellek:

- Argitalpen edo berrargitalpen arruntak egitera ematen diren euskalariak. Gehienak, egia esan.
- Teknika berriak profitatuaz, ahaleginean faksimileak egitera ematen direnak. Urquijo jauna dugu talde honen aldeze sutsuena.

Mota honetako argitalpen berri ia guztien ezaugarria da testua ahalik eta gehiena errespetatzea, den bezala aurkeztea.

Zalantzarik gabe, orduko ekoizpenik onena eta aipagarriena Linchsmann eta Schuchardtek egin zuten Leizarraga osoaren berrargitalpena da.

Francisque Michel eta Vinsonen argitalpenak ere aipagarriak dira, Oihenarten *Atsotitzak*-ena harena eta Harizmendiren *Virginaren officioa*-rena honena.<sup>9</sup>

Blanca Urgellek, ondorio gisa, zera diosku, gerra aurrera arteko edizioek hazitxo bi bederen landatu zituztela geroko belaunaldien buruetan: a) testu zaharrak euskalari zein euskaltzaleok daukagun altxor miragarria dela, aintzinako euskara nolakoa izan zen jakiteko dagoen iturri bakarra, eta b), beraz, errespetuaz argitaratu eta berrargitaratu behar direla, ez norberak nahi duen modura.

---

<sup>9</sup> Adibide gehiagorako, Urgell, 2000a, 20-24.

## 2.1. XX. mendeko bigarren zatia

Bi argitaratzaile mota izan dira XX. mendearen bigarren zatian Urgellen ustez: Mitxelena eta haren tankerakoak, batetik, eta gainerako guztiak bestetik.

### 2.2.1. MITXELENA ETA HAREN TANKERAKOAK

Zein da, non dago Mitxelenaren eredua? Mitxelenak testu zaharren argitalpen kritikoari sekulako bultzada eman zion, baina bere lanik garantzitsuenak *Testos Arcaicos Vasco*-en bilduta edo honi atxikiak dira.

Honezkero Hegoaldeko euskal testu zahar txikiek egin daitezkeen ediziorik onenak lortu dituzte. Zergatik? Mitxelenaren eta ondokoen ardura hizkuntzaren ahalik eta dokumenturik zaharrenak ongi ezagutzea baita, euskararen historian aurreratu ahal izateko.

Eta honen aldamenean, liburuak, testu handiak, argitalpen onik gabe, argitalpen kritikorik gabe geratu dira, salbuespenak salbuespen.

### 2.2.2. GAINONTZEKO GUZTIAK

Bigarren talde honetan jende asko eta oso lan desberdinak sartzen dira eta batzuen eta besteen arteko muga filologian dago: filologia bai, filologiarik ez, honetan dago koxka.

Edizio paleografiko bat egitea, testua den bezalaxe ateratzea, badirudi edozeinen eskuetan egon daitekeela, ez dela testukritikan berezitua izan behar. Eta hauxe izan da euskal argitalpengintzak XX. mendearen bigarren zatian hartu duen bide nagusia: testukritikaren legeak gutxi edo batere ez ezagutzen ez dituzten zaletu mordoa hurbildu zaigu arlora. Euskaltzaleak, ez euskalariak.

Urgellen ustez, testu handiak, liburuak, ez dira filologoen eginak, ez dira testukritikaren legeen azpian eginak eta 1985.era artekoak grafia gaurkotzerakoan, hutsak zuzentzerakoak, erdara erabiltzerakoan edo argitalpen oinarria zein izango zen erabakitzerakoan hartu duten bidea erakusten digu.

## 3. Ondorio gisa: gure proposamena

Joannes Etcheberriren obra izan dugu aztergai azken urteotan eta hemen aurkezten doguna obra horretako liburu baten —*Noelac*(-en)—, edizioa da. Ez gara, baina, aurrenak izan Etcheberriren lanen edizioak prestatzen eta gureak ere jarraipena izan dezan nahiko genuke.

### 3.1. Aurrekariak

#### 3.1.1. HARIZMENDIREN NOELAC

Etcheberri Ziburukoaren *Noelac* liburua erabilera praktikoa zeukan kanta-liburua dugu, orduan oso erabilia eta *Cantica spiritualac* liburua argitaratzen zenetik argitaratzeari utzi zitzaiona.



Vinsonek bere *Essai...*-n (1891) zortzi argitalpen ziur izan dituela badiosku ere, Etxeberri Ziburukoaren *Noelac* liburuak izan bederatzi izan ditu lantzen ari garen doktorego tesian erakusten dugun bezala (Atutxa 2008). Ezagutzen den lehena 1645. urtekoa da, Vinsonek dio 1630. urtean edo hurrengoan kaleratutako bat egon behar zela, baina ez da gurera heldu (1891: 68). Aita Lino Akesolok uste zuen liburu hau umezurtz jaioa litekeela (1971: 7) guk geuk bezalaxe, baina aurkikuntza berri batek arrazoia ematen dio Vinsoni.

Izan ere, duela hiruzpalau urte, Fermin Arkotxari esker, Cristobal Harizmendik prestatutako *Noelac*-en edizio ezezagun bat heldu da gure eskutara. Ezezagun diot inongo katalogotan, ezta Vinsonen liburuetan ere, agertzen ez delako. Honela dio Harizmendiren edizioaren azalak: “NOELAC ETA BERCE CANTA ESPIRITVALAC. IESV CHRISTOREN BICIAZ ETA SAINDV BATÇUENEZ. I. ETCHEBERRI Doctor Theologo cenac berce aldiz eguinac: orai berriro C. HARIZMENDI apeçac deboten othoitcera moldatucheac, eta Doctrinaco pontu premiazco batçuez azquenean berretuac. BORDELEN, G. DE LA COVRT, Erregueren Imprimatçaillea baitan. 1645.”

Harizmendiren ekoizpen kontuak alde batera utzirik, gauza harrigarri bat baino gehiago ikusten dira azal honetan: a) Edizio hau Etxeberriren lehen ezagunaren urte berekoa dugu, hau Baionan, Fauvetarreanean inprimatua bada ere. b) Harizmendik “Etcheberri doctor theologo cenac berce aldiz eguinac: orai berriro C. Harizmendic moldatucheac...” diosku. Beraz, Etxeberrik bigarrenez argitaratu dituela ulertu behar dugu eta Harizmendik, orain, berriro moldatu dituela. Eta 1645. urtean gaudelarik, hemen dugu urte hau baino lehen *Noelac*-en argitalpen bat izan dela frogatzen duen seinalea. c) Harizmendik berak idazten duen bezala, deboten otoitzera moldatu ditu eta puntu premiazko batzuk berretu.

Azken alde honetatik, bada, argitaragaia aldatua izan da, bizi-bizirik zegoelako garai hartan, zalantzarik gabe. Pasarte batzuetan aldatu, bestetan gehitu eta inoiz ezabatu ere egiten ditu Harizmendik. Gehitzen duenetan, esaterako: *Noelac*-en bukaeran Etxeberrirenean ez datozen 84 bertso sartu ditu Harizmendik “San Ambrosioren eta San Augustinoren canta” izenburupean. Kentzen dituenen artean, aipagarrienak hasierako laudoriozko koplak ditugu. Eta moldatu, dena moldatzen du bere grafia eta tankerara: Etxeberrik “*Sanson sendoa ohi duc / sendagallez famatu / Ceren çuen Philistinen / Campo ossoa cehatu*” dioen tokian, Harizmendik “*Sansonec libratu çuen / Philistinen campoa. / Handic dago sendagaillez / Famatu sendoa*”.

### 3.1.1. AKESOLOREN 1970EKO NOELAC-EN EDIZIOA

Akesolok, bere edizioaren sarreran aipatzen duenez, izan du *Noelac*-en edizio desberdinen berri, Vinsonen *Essai...*-n begiratu eta han irakurrita, ziurrenik.

Testua bere jatorrean eman nahi izan digula diosku, bestalde, ortografia zerbait berri eta beste aldaketarik gabe. 31 ohar egiten ditu testu osoan zehar eta gehienak dira tankera honetakoak: “*hau edo hori irakurtzen da beti*”, edizio guztietan kontu bat irakurriko balitz bezala. Eta diogunaren adibide dira jarraiko pasarteak:

- 33. orrialdean, “burdiñak zathiturik” zuzendu du testuan eta oharretan hurrengo esan du: “burdiñak zathurik irakurtzen da beti”. Eta ez da egia, 15b edizioan, Bordelekoan, “burdiñac çathituric” irakurtzen baita.

- 45. orrialdean, “beta ere hurbiltzen zen” zuzendu du testuan eta oharretan honako hau esan du: “Bertsoaren neurria osatzeko, guk jarria da *zen* ori, Etxeberri ere ala idatzi zuelakoan”. Eta 15b ediziora bagoaz, “Bera ere hurbiltzen cen” irakurriko dugu.

Eta honelakoak dira egiten dituen oharrak gehienak, argi erakutsiz ez duela 15b edizioaren berri izan; are, azterketa sakonago baten faltan, esango nuke 15c (Newberry Libraryn dagoena) eta 15d (Londresekoa) ere ez dituela begi-bistan izan.

Alberto Blecuak, bere *Manual de crítica textual* eskuliburuan, “una edición rigurosamente crítica exige la colación personal de todos los testimonios, aunque existan numerosas ediciones críticas anteriores” eta “el cotejo directo de los testimonios debería ser presupuesto crítico inicial” diosku. Eta honekin dena dago esanda.

### 3.1.2. ALTUNAREN MANUAL DEVOTIONEZCOA-REN EDIZIOA

Hegoaldeko euskal testu zahar txikien ondoan, testu handiak argitalpen onik gabe geratu direla esan digu Urgellek, salbuespenak aipatu baditu ere. Eta aipagarriena Patxi Altuna izan da eta aurkeztu dituen Etxepare, Ziburuko Etxeberri, Tartas, Mendiburu eta Haranederren argitalpenak. Altunarena da, Urgellen ustez, 1985 ondoko filologoak begi aurrean izan dezakeen eredu bakarra, *edizio kritiko* izena nolabaiteko egiantzaz eraman dezakeen bakarra.

*Manual devotioezcoa*-ren argitalpena 1981.ean kaleratu zen, Ediciones Mensajero eta Euskaltzaindiaren eskutik.

Gure ustez, oso interesgarri bihurtzen du Altunak obra hau hiru kontugatik. Batetik, hitzaurre gisako lehen orrialdeetan Etxeberriren bizitza eta obraren berri eman eta darabilen mintzaira eta grafiari buruzko oharrak egiten zaizkigu. Beste alde batetik, euskal filologogaiek ulerterrezago izan dezaten, testua orduko grafian eta gaurkoan jarri du Altunak eta, azkenik, obra oharrez eta azalpenez josia dago, Altunaren ezagupen sakon eta maixutasuna erakutsiz.

### 3.2. *Noelac*-en edizio kritikoa

Edizio mota desberdinak ditugu<sup>10</sup> eta, hauetan, gure proposamena edizio kritikokoaren bidetik doa. Argi dago edizio kritikokoaren prozesuan bialdi nagusi edo atal

---

<sup>10</sup> Lakarrak (1988: 111) edizio kritikoa, edizio mekanikoa eta ediziko diplomatiko edo paleografikoa bereizten ditu. Mekanikoak faksimilak liriateke; diplomatikoak izkribua zehazki isladatu nahi dutenak liriateke, argitaratzailearen inongo esku hartzerik gabe.

Ezin dugu aipatu gabe utzi, bizi dugun mundu honetan, edizio mota berriena, edizio elektronikoa. Dom Jacques Froger izan zen 1960.ean lehen saioa bete zuena aldakien kolaziorako tresna elektronikoko erabiliz. 1978rantz, Madison-Wisconsin-eko Hispanic Seminary of Medieval Studies delakoan testuaren konposaketa eta edizio automatikorako oinarritzko tresna izango dena argitaratzen dute: *A Manual of Manuscript Transcription for the Dictionary of the Old Spanish Language*. 1977. Bigarren edizioa D. Mackenzie-k prestatu zuen, 1981.ean (In Orduna, *Fundamentos*: 32). Azken urteotako lanik aipagarrienak, gure ustez, Texas A&M University-ko Eduardo Urbina eta bere lantaldearen lanak (2001) eta Francisco A. Marcos Marín eta bere lantaldearenak ditugu. Marcos Marinek lan izugarria garatu du

aski desberdinak ditugula: lehenaren helburua lekukotasunen jatorria eta euren arteko harremanak zehaztea litzateke; bigarren fasea erabakigarria da, pragmatikoagoa, bere helburua irakurleari testu kritiko jakin bat ematea izanik. Lehen aldiari *recensio* deitzen zaio; bigarrenari, *constitutio textus*. Era berean, *recensio*-a honela azpibana daiteke:

- a) *fontes criticae*, lekukotasunen bilketa eta ikerketa historikoa;
  - b) *collatio codicum*, helburu aldakiak edo *lectiones variae*-ak zehaztea duen lekukotasun guztien arteko kolazio edo erkatzea;
  - d) aldakien *examinatio* eta *selectio*-a;
  - e) *constitutio stemmatis codicum*-a, posiblea balitz.
- Constitutio textus* fasea ere honela azpibana daiteke:
- a) aldakien *examinatio* eta *selectio*-a (*emendatio ope codicum*);
  - b) *emendatio ope ingenii* edo *divinatio*;
  - d) *dispositio textus* (grafiak, puntuazio markak, zeinu diakritikoak, azentuazioa, etab.);
  - e) *apparatus criticus*;
  - f) froga zuzenketa.

Gure lan proposamena burutzen ari garen doktorego tesian dago garatua: Izenburua *Joanes Etxeberri Ziburukoa: Obraren berrirakurketa bibliografikoa eta testu kritika* dugu eta obra osoa aztertzen dugun arren, atalik luzeena eta sakonen aztertuta *Noelac*-i eskainia dugu.

Obra honi dagokion kapituluek testukritikaren bi aldiak dituzte ikergai: *recensioa*, batetik, lekukotasunen jatorria eta euren arteko harremanak zehaztatzea, eta *constitutio textusa*, bestetik, *Noelac*-en edizio kritikoaren aurkezpena hain zuzen.

### 3.2.1. ITURRIEN AZERKETA KRITIKOA

Edozein lan kritikoren aitzinasmoetako bat iturrietara, iturri guztietara heltzea da, eta horretan ahalegindu gara.

Hasteko, Julien Vinsonen bibliografiara jo (1891-8: 68) eta ikusi genuen bera *Noelac*-en bederatzi edizio desberdinez mintzo dela. Lehena suposatu egiten du, eta beste zortzietatik hiru Londreseko Britainiar Museoan daudela idazten du. Azkue Liburutegiaren bitartez, Londreseko hiru edizio hauek eskuratu genituen.

Lino Akesoloren *Noelac*-en edizioa (1970) ere hor zen, eta bertan irakurriak Donostialderantz eramanez gintuen, Julio Urkixo Liburutegirantz alegia. Bertan, bat bilatu eta *Noelac*-en lau edizio desberdin aurkitu genituen (bat, Britainiar Museoan lortutako haietakoa).

*Noelac*-en bi edizio falta genituen; bagenekien Chicagoko The Newberry Library-ko Luis Luziano Bonaparte Printzearen funtsetan hiru ale zituztela eta hara jo genuen guk ez genuenik zutenentz jakiteko asmotan. Bertako Meg Bolder andereari zor

---

alor honetan (1997 edo 2003 adibidez). Euskal munduan, Deustuko Unibertsitateko Alfonso Irigoien Mintegia aipatu behar da, Carmen Isasi buru dela (2004). Mitxelena Katedra honetan bertan aurkeztu dute Joseba Lakarra, Blanca Urgell, Gidor Bilbao eta Ricardo Gomezek Lazarragaren testuaren edizio elektronikoa berria izango dena.

diogu mikrofilm batean zituzten hiru aleak bidali izana. Are, ordainezina bihurtu zaio lanari *Noelac*-en hiru aleotatik bat guk ez genuen argitalpen batekoa izan baitzen (15h argitalpena J. Vinsonen sailkapenean) eta, gainontzeko biak eskuartean genituenekin bat zetozenentz begiratzen hasi ginenean, J. Vinsonen sailkapenean agertzen ez den lekukotasun berri baten aurrean ginela ikusi genuelako.

Beraz, ez genuen Vinsonen sailkapeneko 15e edizioa besterik falta, eta haren bila hasi ginen. Berau, zorionez, Donibane Lohitzunen aurkitu genuen, Maria Josefa Lanuza Telesforo Monzon zenaren alarguntsarenean, H. Lacombe jaunaren arrebari erosi zizkioten liburuen artean.<sup>11</sup>

Iturrien azterketa kritiko honek, bada, *Noelac*-en argitarapen katalogatu guztiak aztertzeko aukera eman digu eta, garrantzitsuago dena, aurkikuntza berri bat egitekoa, katalogatu gabeko edizio berri bat.<sup>12</sup>

### 3.2.2. LEKUKOTASUN DESBERDINEN BAHEKETA (COLLATIO CODICUM)

Lekukotasun guztiak euren artean konparatu eta konparaketa honi esker sortutako aldakien zerrenda eskaintzen dugu atal honetan.

Baheketa egin aurretik, argitaratzaileak prestatuko duen edizioaren orri eredua zein izango den jakin behar du eta jarraian oinarritzko testuaren bertsoz bertso edo lerroz lerroko zenbaketa sistema prestatu behar dira. Guk *Noelac*-en 1645. urteko edizioa hartu dugu oinarri eta gero lekukotasun guztiak oinarritzko testu honekin erkatu ditugu.

Arlo honetan informatikaren laguntza izan dugu. Lehenik, oinarri izan den edizio hau ordenagailuan idatzi dugu. Jarraian edizio hura inprimatu eta konparaketa lanak hasi genituen. Azken urteotan zehar, konparaketak behin eta berriro egin ditugu. Lortutako zerrendak hartu eta aldaki guztiak banan-banan harturik berriro ere iturrietara jo dugu inprimatu duguna eta iturrietan duguna bat datozenentz egiaztatzeko: aldaki kopurua eskerga da eta hutsak erraz egin eta zail aurkitzen dira; halere, gure ustez, zerrendetan agertzen dena ez da gehiegi aldentzen edizio desberdinetan aurkitu ahal dugunetik.

Eta zerrendak ezin dira nolana egin, inprenta batean egiten diren hutsak (eta kopista batek egiten dituenak berdin) era askotakoak izan daitezkeelako, autoreak berak ere hutsak egin edo aldakiak sartu ahal dituela ahantzi gabe.

Guk, aldaerak zerrenda bihurtzeko, bizpahiru liburu izan ditugu eredu eta gidari. Lehena eta oinarritzkoena, Blecuaren *Manual*-a (1987) izan da. Liburuaren sarreran, kopiatzerakoan kopistak egin zitzakeen hutsen tipologia aurkezten digu Blecuak eta kapitulu hau izan dugu ardats gure zerrendak prestatzeko. Neurri apalago batean bada ere, garrantzitsu izan da A. Roncagliaren *Principi e applicazioni di critica testuale* (1974) liburuaren zazpigarren kapitulua: “Copia e corruttela”; hemen ere, aurrekoan

---

<sup>11</sup> Egun, zorionez, liburutegi hori Bergarako Olaso dorrean dago, Telesforo Monzon Fundazioan, Euskaltzaindiak katalogatua.

<sup>12</sup> Ez dugu iturrien artean Harizmendiren *Noelac*-en edizioa kontuan izan. Egin dugu Etxeberriren 1645.ekoa eta Harizmendirenaren arteko konparaketa eta dauden desberdintasunak handiegiak dira bigarren hau iturritzat kontuan hartzeko (honetan bertso eta ahapaldi gehiketa eta kenketa gehiegi dago, gauzak beste modu batera azalduak; ez dakigu, finean, liburu beraren bi argitalpen desberdin ala bi liburu desberdin diren).

bezala, hutsen tipologia bat azaltzen da eta baliioduna gertatu zaigu. Eskuarlean izan dugun hirugarrena Euskaltzaindiak 1990ena kaleratu zuen Leizarragaren obraren idazlanen edizioa izan da.<sup>13</sup> Guri interesatzen zaigun atala «Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga» da.

### 3.2.3. STEMMATICA<sup>14</sup>

Testukritikaren aldi honi gagozkiola, *recensio*-aren azken bi zereginenez arduratu gara, aldakien *examinatio* eta *selectio* eta *constitutio stemmatis codicum*-az hain zuzen.

Kapitulua hiru azpiataletan banandu ditugu: aldakiak, arketipoa eta *stemma*. Lehen azpiatalean, liburu hartu ditugu banan banan, hauen konparaketak eragin dituen aldakiak aztertu eta huts komunaren teoriak baliatuz, aldakiok huts komun (bateratzaile zein banatzaile) direnentz zehazten saiatu gara, lehenik; gero, aldakiok aztertu eta aukeraketa egin ahala, lekukotasunek jarraitu duten bidea azaltzeko ahaleginetan jardun dugu, zeinek zein irakurri duen edo irakurri ez duen azaltzeko asmoz.

*Recensio*-aren teorian arketipoaren ezaugarria ondorengo lekukotasun guztiei huts komunak transmititzea da, azpiarketipoarena ondorengo bi edo gehiagori transmititzea den bitartean, eta hau da bigarren azpiatalean azaldu nahi duguna. *Noelac* liburuari dagokionez, bederatzi lekukotasun ezagun ditugu eskuarlean eta ondorengo guztiei huts komunak transmititzen dien arketipoa, batetik, eta azpiarketipoak aurkitzen eta islatzen saiatu gara.

Hirugarren eta azken azpiatalean, aldaki desberdinen azterketa eta aukeraketa eginik, eta adar independenteak ditugula erakutsiz, *stemma codicum*-a marraztu dugu<sup>15</sup>.


---

<sup>13</sup> Euskaltzaindiak prestatu duen edizio hau H. Schuchardt eta T. Linschmannek 1900ean paratu zutenaren faksimila da. Bertan faksimilaturik azaltzen diren euskal testuek zehazki jarraitzen dituzte lehen ediziokoak, Schuchardtek hasierako ikerketan egiten dituen oharrek kontutan izan behar direlarik. Honen emaitza I. Ruiz Arzalluz eta J. M. Vélez Latorrek itzuli zuten gaztelaniara. Guri interesatzen zaigun atala «Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga» da.

<sup>14</sup> Estema edizio kritikorako lanabes bat besterik ez da eta argitaratzaileak edo irakurleak hartara jotzen duen aldaera-toki bat (obra baten edizio desberdinek toki jakin batetan aldaerak azaltzen dituztenean, orduan, aldaera-toki baten aurrean geundeke, eta orduan jo dezake argitaratzaileak edo irakurleak estemara) behar bezala lotzeko edo argitaratzaileak erabilitako irizpidea egokia izan denentz erabakitzeko. Ezta estema, aparatu kritikoa baizik, edizioaren balioa emango diguna. Estema aurkeztutako zenbait daturen sailkapenaren eskematizazioa eta datuon arteko harremana gauzatzea baino ez da, eta iruzkin bati itsatsia bada izango du benetako balioa. Ordunaren ustez (2005: 20), estema ez da nahitaezkoa edizio kritikoa batean, bereizlea izango ez bada.

Paul Maas-ek atal berezi bat eskeintzen dio arazo honi (*Critica del testo*, 1975: 28-32). Atal horretan, edizio kritikoa baten aitzinsolasean (lekukotasunen deskribapena, genealogia eta “*stemma*”, kanon kritikoa, ortografia, edizio irizpideak eta erabilitako diakritikoak) eta aparatu kritikoa ezinbestekoak diren datuak zerrendatzen ditu. Ordunaren ustez, Michele Barbik zehaztu du inork baino hobeto eta erraztasun gehiagoz edizio kritikoa ideala: “per me l’ideale resta sempre un’edizione ove il testo sia giustificato da una precisa interpretazione e illustrazione” (M. Barbi, “Per una nuova filologia italiana”, *La critica del testo*-n (1985: 73)).

Giorgio Pasqualiren ustez (*Storia della tradizione e critica del testo*, 1952) ez dago prozedura egoki orokorrik, baina horretara heltzeko nahitaezkoa da, hasiera batetik, judizioa erabiltzea, argitaratzaile kritikoa zereginaren zeregin ezin baita inoiz mekanikoa izan, metodikoa baizik. Argitaratzaile kritikoa zeregin hau artea da, baina ez arte mekanikoa. Zeregin metodikoa eskatzen du, baina ez metodo finko bat, edizioari dugun testu jakin bati dagokion/dagozkion metodoa/ak baizik.



#### 3.2.4. NOELAC-EN EDIZIO KRITIKOA (CONSTITUTIO TEXTUS)

Bigarren fase honen helburua irakurleari testu kritiko bat eskaintzea da, gure kasuan *Noelac*-ena.<sup>16</sup>

Eta hemen ere, hartu dugun metodologiari jarraiki, hurrengo pausuak desberdinduko ditugu:

##### a) *Examinatio* eta *selectio* eta *emendatio*

*Stemmaren* helburua arketipoaren edo originalaren ahalik eta berreraiketa zehatzena bermatzea da eta *constitutio textus* honetan adar desberdinen irakurketa amankomunei gagozkiela berreraikiko dugu testua.

*Stemmak* aldaki baten aukeraketa baieztatzeko balioko digu, autorea eta garaiaren *usus scribendiaren* ezagupen ahalik eta zabalenaz baliatuz egingo dugun aukeraketa.

##### b) *Dispositio textus*

Hemen, arazo ortografiko eta prosodikoez arduratu beharko dugu (hau da, grafien arazoa,<sup>17</sup> hitzen banaketa, azentuazioa eta puntuazioa), testua modurik egokienean ezartzeko.

<sup>15</sup> Aldaki bakoitza izendatzeko, Vinsonen sailkapena jarraitu dugu.

<sup>16</sup> “Behin edizio kritiko bat egingo dela erabakiez gero, kontuan hartu behar da honek testua aurkeztea baino xede trinkoago bat izan behar duela. Edizio paleografikoak ez bezala, edizio kritikoak bere esangurarik gabeko alderdiak oro alde batera utzita, esanguratsuetan jartzen du arreta guztia. Esan gabe doa garrantzizkoa zer den, eta zer garrantzizgabea, kasuan-kasuan erabaki beharrekoa dela. Eta honek aurretiaz lan handia eskatzen duela” (Urgell, 200b: 23).

c) *Apparatus criticus*

Aparatu kritikoa aldakien aparatua eta guk aldaki baten aukeraketa edo aierua bermatzeko beharrezkotzat jotzen ditugun oharrez osatua izango da.

### 3.2.5. GURE LANAREN EKARPENA

Bukatzeko, gure lanean, euskal bibliografiaren historiako Etxeberriren *Noelac*-en edizio desberdinen sailkapen berri bat eskaintzen dugu, batetik, eta euskal testugintzaren historiako *Noelac*-en edizio berria, gure uste apalez kritiko izena mereziko duena, eta euskal filologiarako ekarpenik izango badu, urriena izanda ere, urte guzti hauetako lanak pena merezi izango du.

#### 3.2.5.1. *Noelac*-en sailkapen kronologikorako proposamen berria

**Na edizio hipotetikoa** (Vinson, 15a)

“NOELAC ETA BERCE canta espiritual berriac. Iesus Christoren biciaren mysterio pricipalen gañean. Eta sainduen ohoretan besta buruetacotz. Ioannes Etcheberri Doctor Theologoac eguiñac. BORDELEN, G. MILANGES, 1630 edo 1631”

**Nb edizioa** (Vinson, 15b)

“NOELAC / ETA BERCE / canta espiritual / berriac. / Iesus Christoren biciaren mysterio pricipalen gañean. / Eta sainduen ohoretan besta buruetacotz. / Ioannes Etcheberri Doctor / Theologoac egniñac. / (fleuron) / BORDELEN, / GVILLEN MILANGES, Erre- / gueren Imprimatçaillea / baithan, 1645”

**Nc edizioa** (katalogatu gabea)

“NOELAC / ETA BERCE / canta espiritual / berriac. / Iesus Christoren biciaren / misterio pricipalen / gañean. / Eta sainduen ohoretan besta / buruetacotz. / Joannes ETCHEBERRI / Doctor / Teolegoac : egniñac. / (croix entre deux petits fleurons) / BAIONAN, / MAFFRE Baitan bors / Cantognetan. 1697”

**Nd edizioa** (Vinson, 15c)

“NOELAC / ETA BERCE / canta espiritual / berriac. / Iesus Christoren biciaren / misterio pricipalen / gañean. / Eta sainduen ohoretan besta / buruetacotz. / Joannes ETCHEBERRI / Doctor / Teolegoac : egniñac. / (croix entre deux petits fleurons) / BAIONAN, / MAFFRE Baitan bors / Cantognetan. 1697”

**Ne edizioa** (Vinson, 15d)

“NOELAC / ETA BERCE / canta espiritual / berriac. / Iesus Christoren biciaren / misterio pricipalen / gañean. / Eta sainduen ohoretan besta / buruetacotz. / Joannes ETCHEBERRI Doctor / Teolegoac egniñac. / (croix entre fleurons) / BAIONAN, / MAFFRE Baitan bors / Cantognetan. 1699”

**Nf edizioa** (Vinson, 15e)

“NOELAC / ETA BERCE / canta espiritual / berriac. / Iesus Christoren biciaren / misterio pricipalen / gafiean. / Eta sainduen ohoretan besta / buruetacotz. / Ioannes

---

<sup>17</sup> “Egiazko edizio kritikoek eskuarki grafia gaurkotzea eskatzen dute” (Urgell, 200b: 7) eta “Aitzitik, grafia ondo gaurkotzea, ezinbestean aintzinako idazlanaren grafemak zein hotsi dagozkion ondo finkatzearen ondorio baino ezin daiteke izan”(idem: 8).

ETCHEBERRI Doctor / Teologoac egnificac. / (croix simple) / BAIONAN, / MAFFRE Baitan, bors / Cantognetan. 1699”

**Ng edizioa** (Vinson, 15f)

“NOELAC / ETA BERCE / canta espiritual / berriac. / Jesus Christoren biciaren / misterio pricipalen / gañean. / Eta sainduen ohoretan besta / buruetacotz. / Joannes ETCHEBERRI Doctor / Teologoac egnificac. / (croix entre fleurons) / BAYONAN, / P. Fauveten, Imprimerian / Carmesetaco aldean.”

**Nh edizioa** (Vinson, 15h)

“NOELA / ETA BERCE / canta espiritual / berriac. / Jesus Christoren biciaren / misterio pricipalen gañean. / Eta sainduen ohoretan besta / buruetacotz. / Joannes ETCHEBERRI Doctor / Teologoac egnificac. / (croix simple) / BAYONAN, / P. FAUVET, Imprimatcaillea / baithan, Carmesen aldean”

**Ni edizioa** (Vinson, 15g)

“NOELA / ETA / BERCE / CANTA / ESPIRITUAL BERRIAC. / Jesus Christoren hiciaren misterio pricipalen / gañean. / Eta sainduen ohoretan besta / buruetacotz. / Joannes ETCHEBERRI Doctor / Teologoac egnificac. / (3 fleurons, deux et un) / BAYONAN, / J. FAUVET, Imprimatcaillea / baithan, bortz-Cantoiñetan.”

**Nj edizioa** (Vinson, 15i)

“NOELA / ETA / BERCE / canta spiritual berriac. / Jesus Christoren hiciaren misterio pricipalen gañean / Eta sainduen ohoretan besta / buruetacotz. / JOANNES ETCHEBERRI, / Doctor Teologoac egnificac. / BAYONAN, / P. FAUVET, Imprimatcaillea / baithan, Carmesen aldean.”

#### 4. Bibliografía

Akesolo L., 1971: “Noelac, ez Noela”, *Zeruko Argia*, 32. alea. 123. zenb.

Anselmi, G. M., PASQUINI, E., RICO, F., 2004: *Ecdotica I*. Università degli Studi di Bologna. Carocci editore.

Atutxa, I., 2008: *Joannes Etcheberri Ziburukoa. Obraren berrirakurketa bibliografikoa eta testu kritika*. EHU. Doktorego Tesia. Prestatzen.

Blecua, A., 1987: *Manual de crítica textual*. Editorial Castalia.

Isasi, Carmen, “Criterios filológicos y edición electrónica”. [http://www.uclm.es/lamusa/ver\\_articulo.asp?articulo=41&lengua=es](http://www.uclm.es/lamusa/ver_articulo.asp?articulo=41&lengua=es)

\_\_\_\_\_, A. Elejabeitia, I. Martínez, M<sup>a</sup> C. Moral del Hoyo, J. Pérez Moreno, S. Pérez Isasi, 2004: “La edición en el siglo XXI: nuevos retos universitarios”. *V Jornadas de Informática y Sociedad (JIS 2004)*.

Lakarra, J. A., 1988: “Testukritika: Stemmarantz”. In J.A. Lakarra (arg.) *Hiztegiak eta testuak*, Bilbo: UPV/EHU-ren Argitalpen Zerbitzua, 101-139.

Leizarraga, I., 1571: *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria, Kalendra, ABC*, [Th. Linschmann & H. Schuchardten edizioaren (Strassburg, 1900) berrarg. faks., Euskaltzaindia, Bilbo 1990.

Marcos Marín, F. A., 1997: “Edición crítica electrónica”, J. Romera Castillo, F. Gutiérrez Carbajo & M. García-Page (arg.), *Literatura y Multimedia, Actas del VI Seminario Internacional del Instituto de Semiótica Literaria, Textual y Nuevas*



- Tecnologías de la UNED (Cuenca, UIMP, 1-4 julio 1996*, Madrid: Visor libros, 91-148.  
<http://www.illf.uam.es/fmarcos/articulo/97UNEDEdCrit.pdf>.
- \_\_\_, 2003: “La construcción de un instrumento informático para la edición crítica”, *Letras de Deusto*, vol. 33 (100. Zb.), 81-108.
- Morocho Gayo, G., 2003a: “Problemas y métodos de crítica textual en Esquilo”, *Estudios de crítica textual (1979-1986)*, Universidad de Murcia, 130.
- \_\_\_, 2003b: “Sobre crítica textual y disciplinas afines”, *Estudios de crítica textual (1979-1986)*, Universidad de Murcia. [http://interclassica.um.es./investigacion/monografias/Estudios\\_de\\_critica\\_textual\\_1979\\_1986/\(ver\)/1](http://interclassica.um.es./investigacion/monografias/Estudios_de_critica_textual_1979_1986/(ver)/1)
- Orduna, G., 2005: *Fundamentos de crítica textual*, Arco Libros, SL, Madrid.
- Urbina, E., R. Furuta & Shueh-Cheng Hu, 2001: “El arte nuevo de editar textos en este tiempo”. Center for the Study of Digital Libraries. Proyecto Cervantes,  
<http://www.ucm.es/info/especulo/numero12/artenuev.html>
- Urgell, B., 2000a: “Euskal edizioen historiaz I” *Euskal testuen historias eta edizioaz (I)* UPV/EHUaren Udako Ikastaro hitzaldi argitaragabea.
- \_\_\_, 2000b: “Euskal edizioen historiaz II” *Euskal testuen historias eta edizioaz (I)* UPV/EHUaren Udako Ikastaro hitzaldi argitaragabea.